

Oiartzungo Udalak berriz onartuko ditu Eudimaren estatutuak larunbatean

Mankomunitateak intsumisioaren alde egiteko eskatuko dio Udalbiltzari

Ainara Mendiola / Oiartzun

Oiartzungo Udalak berriro onartuko ditu Eudimaren estatutuak datorren larunbatean, biltzar berezi batean, Xabier Landa alkateordeak atzo jakinarazi zuenez. Eudimak Udalbiltza eta Lizarra-Garaziko Foroari desmilitarizazioaren aldeko ekintzak egiteko eskatuko die.

EAE-KO Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi ondoren Oiartzungo Udalak Euskal Udal Intsumituen Mankomunitatean (Eudima) sartzeko erabakia —1997ko apirilean hartu zuen—, mankomunitatearen estatutuak berriz onartuko ditu Udalak datorren larunbatean. Helegiterik, berriz, ez du aurkeztuko. Izan ere, Fermin Vila Eudimako koordinatzaileak berriz ere esan zuenez, «desobedientziarekin» erantzungo diete mankomunitatearen aurkako epaiei, eta erantzun hori izango da mankomunitatea bera indartzeko.

«Oiartzungo herritarrek betidanik oso argi adierazi dute derrigorrezko zerbitzu militarrek, Espainiako eta Frantziako Armadak ez daukatela lekuri ez Oiartzunen eta ez Euskal Herri osoan», Xabier Landa alkateordearen arabera, eta esan zuen «herritarren eskakizunei erantzuteko» hartu zela Eudiman sartzeko erabakia. Epaia



Xabier Landa, Xabier Irigorri eta Fermin Vila, atzo, Oiartzun.

demokrazia falta islatzen duela kritikatu zuen, herritarren nahia ukatzen duela, eta horren aurrean desobedientzia bultzatuko duela Udalak. Hala, Eudimaren estatutuak berriz onartu ondoren, kontzentrazioa egingo dute larunbatean, herriko plazan, Herriaren hitza errespetatu. Espainiako eta Frantziako armadak kanpora leloarekin.

Azterketarako deia

Fermin Vilak salatu zuenez, Euskal Herriko gehiengo

sozial, sindikal eta politikoak ez du egin «jasaten ari den militarizazio prozesuari buruzko azterketarik», eta eragile horiek «aktibatzea» izango du xede Eudimak datozen hilabeteetan.

Aste Santuaren ostean, Lizarra-Garaziko Foroari eta Udalbiltzari adieraziko diote desmilitarizazioaren aurrean guztiek ez badute «aktiboki» jokatzeko ezinezkoa izango dela demokrazia eraikitzea, Eudimako koordinatzaileak esan zuenez.

Justizia Auzitegiaren epaia

«marko politiko berri baten aldeko apustua egiten dugun sektore politiko, sozial eta sindikalen aurkakoa da», Vilaren iritziz, «Euskal Herriaren nortasun nazionala eta herriaren borondatea deuseztatzen duelako».

Euskal Herrian 12.000 militar baino gehiago daudela salatu zuen Vilak, Guardia Zibilak 100 kontrol baino gehiago egiten dituela egunero, «lapurtutako» 40.000 metro koadro lur baino gehiago dituela, eta «okupatutako» 80 etxe baino gehiago.

Epaiketa militarra egingo diote Bizkaiko intsumiso bati gaur, Coruñan

Javier Rodriguez gazteak Soietxeko kuarteletik alde egin zuen

Erredakzioa / Bilbo

JAVIER RODRIGUEZ HILDALGO Portugaleteko intsumisioa epaituko dute gaur Coruñan, Mungiako Soietxeko kuartel militarretik alde egiteagatik.

Iazko otsailaren 17an Javier Rodriguezek derrigorrezko zerbitzu militarra hasi zuen Soietxeko kuartel militarrean, eta egun berean kuarteletik alde egin zuen, Kontzientzia Eragozpen Mugimendua (KEM) kuartelako intsumisio kanpainaren barruan.

Rodriguezek kuarteletik alde egin zuenean, sarrean bidutako antimilitaristek militarren parodia bat egin zuten.

Epaiketa Coruñako lau garren epaitegi militarrean egingo da, gaur goizean. Fiskaltzak hiru urteko kartzela zigorra eskatzen du derrigorrezko zerbitzu militarretik desertatzeagatik. Zigor hori intsumiso baten kontra eskatutako altuena da, orain arte jarritako handiena bi urte eta sei hilabetea izan baita.

Dagoeneko, 30 intsumisok desertatu dute derrigorrezko soldadutzatik KEM mugimenduak 1997. urteko ekainean abian jarri zuen kuartelako intsumisioaren kanpainaren barruan.



Hondarribiko Udala

IRAGARKIA

Udalbatzak 2000ko martxoaren 30eko Osoko Bilkuran hasierako onespina eman zion Josefa Amunarriz Altuna Andrearen jabetzak derrigorrezko desjabetzeko espedienteak irekitzeari, jabetza horiek 32 E.U. Jaizkibel Urbanizazio-konpentsazio Juntak eragina duen esparrukoak izanik, bertan sartzera behartuta daude.

Jendaurrean erakusteko, hamabost laneguneko epea zabaltzen da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, interesatuak datuak ekarri eta zuzendu edo bidezkoztat ematen dituen alegazioak aurkez ditzan.

Espedienteak Udala honetako Hirigintza Departamentuan, Kale Nagusian, 20-4. solairuan jarriko da eskatzen duenaren esku.

Hondarribia, 2000ko martxoak 31.
ALKATEA.
Borja Jauregi Fuertes.



Zarauzko Udala

IRAGARKIA

Zarauzko Udalaren Gobernu Batzordeak, 2000ko martxoaren 29an egindako bilkuran, ondorengo proiektuari hasierako onespina eman eta jendaurrean jartzea erabaki zuen:

- **Zarauzko Planeamendurako Arau Subsidarioen 20-1 areako (Casa Justo) Barne Berrikuntzarako Plan Berezia.**

Espedienteak ikusi eta alegazioak aurkezteko epea: Udaletxeko Idazkaritzan 15 eguneko epean. Epea prentsan iragarki honen azken iragarpina argitaratu eman eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Iragarkia 2000ko apirilaren 10ean argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Zarautz, 2.000ko apirilaren 11.
Alkatea.



I.E.S. LASARTE-USURBIL B.H.I.

LASARTEKO LURRALDEAN, HEZIKETA PUBLIKOA KALITATEKOA ETA AURRERAKOLA

- **D.B.H. B ereduak**
- **L.O.G.S.E. BATXILERGOAK (A eta D ereduak):**
 - Humanitateak eta Gizarte Zientziak
 - Natur eta Osasun Zientziak
 - Teknologia
- **HEZIKETA ZIKLOAK (A eta D ereduak):**
 - **Erdi mailakoak:**
 - Administrazio Kudeaketa
 - Merkataritza
 - **Goi mailakoak:**
 - Administrazioa eta Finantzak
 - Sistema informatikoak

D.B.H./L.O.G.S.E.:
Buenos Aires Aldapa, z/g, 20160 LASARTE
Tfnoak.: 943 - 37 22 77 / 943 - 37 28 52

ZENTROAK ESKEINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

Autobus zerbitzua Zarautz eta Donostiatik
LANGAI
Orientabide zerbitzua
Heziketa ez arautua
Irteera kulturalak
Praktikak Europako Elkarteko enpresetan

HEZIKETA ZIKLOAK:
Urnieta Bidea, z/g, 20160 LASARTE
Tfnoa.: 943 - 37 06 11

AURREMATRIKULA: Maiatzak 2tik 15era, biak barne